

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Aurki ikusgai: martxoak 17

OSKAR KOKOSCHKA

VIENAKO ERREBELDEA

Babesle bakarra:

Fundación
BBVA

MM MUSÉE
D'ART MODERNE
DE PARIS

BBVA Fundazioak abangoardiako sormen kulturalari bultzada emateko konpromisoaren erakusgarri ezin egokiagoa da Guggenheim Bilbao Museoarekin behin baino gehiagotan izandako lankidetzak. Gure Fundazioa erakunde horren Babesle Estrategikoa izan da, erakundea 1997an sortu zenetik bertatik. Gaur egun kulturaren, modernitatearen eta irekitzearen erreferente den erakunde hori hiriaren eraldaketaren ardatzetako bat izan zen, eta BBVAk ondo errotuta ditu hirian sustraiak, mende eta erdiz baino gehiagoz bertan jardun ondoren.

BBVA Fundazioarentzat atsegin handia da *Oskar Kokoschka*. *Vienako errebeldea* atzerabegirakoak adierazten duen bikaintasun artistikoa bultzatu ahal izatea. Europako ikusleek jadanik izan dute erakusketa horretaz gozatzeko aukera —eragin eta aitortza handia izan du erakusketak— Parisko Musée d'Art Modernen, zeina erakusketaren antolatzailekidea baita, eta orain Bilbora iritsi zaigu, XX. mendeko europar arte plastikoetako figura nagusietako baten gainbegirada zabal eta sakona eskaintzeko.

Kokoschkaren biografia ez da herrialde batera mugatzen, ia nomada izan baitzen, eta horrek izugarritzko garrantzia izan zuen haren eboluzio piktorikoan. Artistaren lehen margolanak, 1900eko hamarkada amaierakoak, zeharo berritzaileak izan ziren; zalaparta ikaragarria eragin zuten Vienako eszena artistikoan, eta artista errebeldearen ospea egotzi zioten.

Gerra Handian parte hartu ondoren (larri zauritu zuten frontean, 1915ean) eta Desdren egonaldi luze bat egin ondoren, Kokoschka bidaiatzen hasi zen Europan, Afrikako iparraldean eta Ekialde Hurbilean barrena, eta hala zabaldu zituen erretratuetan erabiltzen zituen teknikak eta adierazpideak paisaien pinturara, eta garai horretan hasi zen orobat berak “animalien erretratu” definitu zituenak egiten.

1930eko hamarkadan, Kokoschkak erresistentziaren tresna bihurtu zuen bere artea, goraldean zegoen nazismoarekin borrokan ari zen askatasun moral, sozial eta artistikoaren defentsa hertsia eginez. Haren pinturak alegoriko bilakatu ziren, haietariko lehenengoetako bat *Lagundu euskal haurrei!* izan zelarik, Espainiako gerra zibilaren aurkakoa. Austriatik ihes egin behar izan zuen erregimenak 400etik gora obra konfiskatu zizkionean, eta Pragan eta Londresen hartu zuen bizilekua; han areagotu egin zuen konpromiso politikoa eta soziala.

Erbestearen etapa horretan bera izan zen Europarentzat proiektu komun bat bultzatzen lehenengoetakoak, herrien arteko batasuna sustatuz eta giza kontzientziari dei eginez. Gainera, XX. mendearen bigarren zatiko arrisku etako batzuk igarri zituen, hala nola krisi ekonomikoak eta mehatxu nuklearra. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Kokoschka Suitzara joan zen, eta han heldutasun handiko obrak eta mugimendu piktoriko berriengan eragin handia izan zutenak ekoizten jarraitu zuen, 1980an hil zen arte.

Gaur hemen aurkezten dugun erakusketak artistaren ibilbidearen ikuspegi osoa eskaintzen du, eta aukera paregabea da gertutik ikusteko Espainiar estatuan ia ezezagunak diren funtsezko hainbat obra, zeinak mailegatu baizituzten nazioarteko ospe handiko hainbat erakundek.

Egokia eta zuzena da zorionak ematea eta esker ona adieraztea erakusketa handinahi hau diseinatu, gauzatu eta ahalbidetu duten arte-arduradunei: Dieter Buchharti eta Anna Karina Hofbauerri, komisario independente gisa, Parisko Musée d'Art Moderneko Fabrice Hergottekin eta Fanny Schulmanekin koordinazioan aritu direnak, eta Marta Blàviari, Guggenheim Bilbao Museoan arte-ardura taldearekiko egin duen lotura lanagatik. Erakunde horri ematen dizkiogu era berean gure zorionak eta adierazten diogu gure esker ona, eta orobat haren Zuzendari Nagusi Juan Ignacio Vidarteri eta hark modu eredugarrian zuzentzen duen talde osoari, zeinaren lana eta ardura sumatzen baiten erakusketa berezi honen xehetasun guzti-guztietan.

Oskar Kokoschka: Vienako errebeldea

- Datak: 2023ko martxoaren 17tik irailaren 3ra
 - Komisarioak: Dieter Buchhart eta Anna Karina Hofbauer, Fabrice Hergott eta Fanny Schulmanekin elkarlanean.
 - Antolatzaileak: Guggenheim Bilbao Museoa eta Parisko Musée d'Art Moderne, Paris Musées
 - Babesle bakarra: BBVA Fundazioa
-
- Bere ibilbidean zehar Kokoschka etenik gabe aritu zen eremu ezezagunak arakatzen. Hala, corpus artistiko iraultzaile bat sortu zuen aktibista politiko, arte figuratiboaren gidari eta arimen margolari gisa.
 - Ideal klasikoak gaindituta, Kokoschkak analisirako tresna gisa erabili zuen erretratuaren generoa, modeloak barnean duen ni-a erakusteko gai dena.
 - Kokoschkaren obran irudikapenak oso modu askean egokitzen dira irudikatzen denaren formetara eta kolore puru eta distiratsuetan barreiatzen da guztia.
 - Kokoschka bere aparteko konpromiso bakezaleagatik nabarmendu zen. Haren ustez, "artistak alarma gisa jardun behar du".

Guggenheim Bilbao Museoak eta Parisko Musée d'Art Moderne, Paris Musées-ek *Oskar Kokoschka: Vienako errebeldea* aurkeztzen dute, Vienan modernitatearen aitzindari izandako artista austriarrari eskainitako atzera begirako erakusketa, Museoaren Babesle Estrategikoa den BBVA Fundazioak babestua. Oskar Kokoschka (1886–1980) goiz lortu zuen arrakasta Vienako eszena artistikoan. Bertan, Gustav Klimten babesa jaso zuen eta eragin handia izan zuen Egon Schiele gaztearengan. Kokoschkaren ibilbidearen amaieran zabaldu zen bere ospea nazioartean, bi mundu gerren ondoren. Bigarren Mundu Gerra azkenetan zenean, Kokoschka Europa batu bat aldarrikatzen zuen, eta *Neue Wilde* mugimenduan —Austriako eta Alemaniako pintura berrian— arrastoa utzi zuen bere obra berankorrekina. Kokoschka arlo ugarran aritu bazen ere —antzerkia, aktibismo politikoa eta idazketa— artea izan zen bere bizitza osoaren ildo nagusia. Arlo horretan etenik gabe jardun zuen eremu ezezagunak arakatzen, eta corpus artistiko iraultzaile bat sortu zuen aktibista politiko, arte figuratiboaren gidari eta arimen margolari gisa.

Enfant terrible bat Vienan (1907–1916)

Kokoschkaren aurrenetako obrak Lehen Mundu Gerraren aurreko urteetan Europak bizi zuen giro sutsuak inspiratu zituen, eta zeharo erradikalak dira erakusten dituzten diseinu, lerro eta esperimentazio kromatikoengatik. Giza gorputza eta bere adierazpideak gai nagusiak dira artistaren marrazki goiztiarretan; horietan, paper gainean trazu sotil baina oso adierazkorrekin irudikatzen ditu modeloen mugimenduak. Kokoschka Vienako Art Nouveau estilo dekoratibotik urruntzen joan zen ertz ugarriko lerroak

lantzearen alde; izan ere, lerro horiek ematen diete darien ezaugarri aparteko hori gorputzei. Estilo berri horrek eragin nabarmena izan zuen bere kide batzuegan, Egon Schieleren kasuan esaterako, baina baita Vienako publikoaren erreakzio sutuetan ere. Alde horretatik, marrazkiek markatu zuten konbentzionalismo artistikoei eta planteamendu burges tradizionalari Kokoschkak egindako kritika erradikalaren hasiera.

Bere hasierako arrakastaren ondoren —1908ko Vienako Arte Erakusketan— Kokoschkak etapa sortzaile emankor bati ekin zion. Artista gazteak ezin konta ahala enkargu jaso zituen erretratuak egiteko, bere aurrenetako mezenas Adolf Loosi esker. Ondoren, margolariak koadro ugari sortu zituen, eta haietan bere potentzial guztia arakutzen jardun eta horrela lortu zuen betiko izango zuen *enfant terrible* ospea. Ideal klasikoak gaindituta, Kokoschka erretratuaren generoaz baliatu zen, modeloak barnean duen ni-a erakusteko gai den tresna analitiko hartuta. Hondo zehaztuak baztertu zituen, eta horien ordeez eremu kromatikoa lausoak lantzeari ekin zion. Horrela, berdinek ez duen berehalakotasun batez nabarmentzen da modeloa atzealde horien kontra ezarria. Marrazkietan bezala, erretratuetan trebetasuna ikaragarria erakusten du pertsona erretratatuaren psikologia mihisearen gainean aditzera emateko.

Oskar Kokoschkak eta Alma Mahler konpositoreak Carl Moll margolariaren etxean ezagutu zuten elkar. Almak berak bere autobiografian dioenez, 1912ko apirilean Mollen etxean bizi zen Kokoschka, eta marrazki bat egin zion pianoa jotzen ari zen bitartean. Bi egun geroago izan zuten beste elkarraldi baten ondoren, aurreneko maitasun-gutuna bidali zion Kokoschkak; lauhun bat dira guztira idatzi zizkionak. Hasiera ezti haien eta bien arteko harremanak hartuko zuen norabide garratzaren arteko urteetan, Kokoschkaren musa famatuena bihurtu zen Alma; egin zizkion erretratu ugariak dira margolariak Almarengan sentitzen zuen liluraren erakusgarri. Izan ere, Kokoschkaren obsesio bilakatu zen Alma, Dresdenen bizi zela enkargatu zuen haren panpina famatuarekin gorenera iritsitako obsesioa, hain zuzen.

Dresdeneko urteak (1916–1923)

Lur jota, harreman ekaiztsu baten ondoren Alma Mahlerrek 1914an utzi zuenean, Kokoschka armadan sartu zen Lehen Mundu Gerra hasi eta berehala. Bitan larriki zauritua, Berlinera lekualdatu zen gero. Hiri hura bere bizilekua izan zen 1916aren bukaerara arte, eta Paul Cassirer galeristarekin kontratu bat sinatu zuen bertan. Gerrak depresio sakon batean murgilduta utzi zuenez gero, tratamenduan jarri zen Dresdeneko sendategi batean. Dena den, laster nagusituko zen eszena artistikoan eta Dresdeneko Arte Eder Akademiako katedradun izendatu zuten. Hurrengo urteak ere oso emankorrak izan ziren Kokoschkaren sortze-lanean. Aldi hartako bere pinturak pintzelkada bizkorrengatik eta koloreen bizitasunagatik nabarmentzen dira; koloreak trebetasun handiz ezartzen ditu elkarren ondoan, eta horrek ematen die pinturari darien indar hori. Irudikapenak oso modu askean egokitzen dira irudikatzen duen horren formetara, eta guztia barreiatzen da kolore puru eta distiratsuetan. Irudiak eta objektuak agerian dagoenaren eta deseginda geratzen denaren artean mugitzen dira. Kontraste gogorrak sortzen ditu argi-ilunen eremuen artean, trantsiziorik gabe elkar ukitzen dira eta indartu egiten dute hain nabarmena den efektu hori. Horregatik guztiagatik, Dresdeneko urteetako maisulanak gailenetakoen artean daude Kokoschkaren corpus artistikoan.

Bidaiak (1923–1934)

Dresdeneko bere aldi artistiko aitzindariaren ondoren, 1923an, Kokoschkak uko egin zion Arte Eder Akademiako bere katedrari. Paul Cassirer galeristak diruz lagundu zion, eta horrek aukera eman zion Europatik, ipar Afrikatik eta Ekialde Hurbiletik bidaiatzeko. Paisaiek, hirietako eszenek, pertsonen eta animalien erretratuek, eta beste obra batzuek nabarmen kontrastatzen dute Dresdeneko urteetan landu zuen planteamendu esperimentalarekin. Artistak, betiere eremu berriak etengabe arakatu asmoz, estilo berri bat aurkitu zuen, pintura tradizionalaren metodoekin ezertan bat ez zetorrena. Bere paisaiek ez dute leku jakin baten topografia birsortzeko asmorik; aldiz, lekuaren giroa jasotzea dute helburu, berdinek ez duen adierazkortasuna lortzeraino. “Koloreen bitartez eratutako espazio bat sortu nahi dut”, esan zuen behin. Sarritan, konposizio horiek goitiko ikuspuntu batetik daude planteatuta eta sakontasun espazial izugarri handia dute. Hiriak eta paisaiak behatoki garaietatik begiratzeak Lehen Mundu Gerrako lubaki sakonetan bizitako esperientzia traumatikoak prozesatzeko balio izan zion Kokoschkari. Koadro horiekin, margolaria berriro bihurtu zen aitzindari eta erreferente. 1926ko urtarrilaren 7an bere buruaz beste egin zuen Paul Cassirerrek eta, ondoren, 1929an, burtsak gainbehera egin eta krisia sartu zen. Gertakari haiek jota utzi zuten Kokoschka. Bere babesle nagusia galdu izanak egoera ekonomiko kezagarri batean utzi zuen. Diru-sarrerarik gabe, Vienara itzuli zen 1932an, eta suntsituta topatu zuen hiria faxismoaren goraldiari lotutako liskar politikoen ondorioz.

Pragako erresistentzia (1934–1938)

1934an, faxisten eta sozialisten artean Austrian hasitako gerra zibilaren garaian, Kokoschkaren ama gaixotu eta aste batzuen ondoren zendu zen. Pragara lekualdatu zen artista, bere aitaren hirira, eta bere arreba Bertarekin jarri zen bizitzen, jasaten ari zen zailtasun ekonomikoak arinduko zirelako itzaropenarekin. Han, Olda Palkovská (1915–2004) ezagutu zuen, zuzenbideko ikasketak egiten ari zena, eta berarekin ezkondu zen 1941ean. Garai hartan sortutako koadroetan pertsonak ageri dira paisaia bukolikoetan irudikatuak, eta ihesbide antzeko bat dira uneko errealitate politiko zorigaitzokoaren aurrean.

Txekoslovakiatik, Europa nazien eskutik setiatzen ikusi ahal izan zuen Kokoschkak. Artikulu ugari argitaratu zituen eta hitzaldiak ere antolatu zituen biztanleei arriskuaz ohartarazteko. Hala, are eta indar handiagoaz suspertu zen beregan gai politikoekin hartua zuen konpromiso artistikoa. Bere koadroetako batzuk arte degeneratuaren erakusketa ibiltarietarako hautatu izan ziren, Europako abangoardiako beste obra ugarirekin batera. Eseite horri eman zion erantzuna bere *“Artista degeneratu” baten autorretratu*a zorrotza izan zen.

Ingalaterrako erbestealdia (1938-1946)

Nazionalsozialistek Austria anexionatu ondoren, Pragatik Ingalaterrara ihes egin zuen Kokoschkak, Oldak eskatuta. Hutsetik hasi behar izan zuen bere talentu artistikoa oraindik aitortu ez zitzaion herrialde batean. Oldarekin batera bizimodu xume bat eraman zuen Londres eta Polperro (Cornualles) artean. Oztopoak oztopo, areagotu egin zen artistaren konpromiso politikoa, kontuan hartuta naziek “degeneratutzat” zutela. Kokoschkak irmotasunez egin zion aurka nazionalsozialismoari, eta bere aparteko konpromiso

bakezaleagatik nabarmetzen hasi zen; horrek, hain zuzen, erresistentzia internazionalaren buruan kokatu zuen. Artikulu eta diskurtso ugarietz gain, zenbait alegoria politiko sortu zituen itzulingururik gabe salatzeke European une hartan bizitzen ari ziren egoera. “Artistak alarma gisa jardun behar du”, horrela definitu zuen behinola politikaren eta artearen arteko harremana. Kokoschkaren irudi politikoak deklarazio haserreak dira, sentimenduz beteak, eta publikoa ohartaraztea dute helburu. Bestetik, bere bakezaletasuna eta adiskidetzaren garrantzia aldarrikatu zituen, ikusgai jartzen zituen kartelak diseinatu eta argitaratzen zituen testuak idatziz.

Gerra amaituta, 1947an britainiar hiritartasuna lortu zuen, eta horrek aukera eman zion berriro ere Europara bidaiatzeko. Zuzenean Vienara joan bazen ere familia bisitatzeraz, ez zuen bertan berriro ezarri nahi izan. Basileako Kunsthalle-k bere obraren garrantzi handiko erakusketa bat antolatu zuen urte hartan bertan, artista gailen haren ospea berresteko eta Europako kultura lehengoratzeko bete zuen funtsezko zeregina aitortzeko.

Artista europar bat Suitzan (1946–1980)

1948an eta 1949an Kokoschkari eskainitako erakusketa ibiltari handi bat egin zen; Boston, Washington, St. Louis, San Frantzisko eta Wilmingtonen egon zen ikusgai, eta New Yorkeko MoMAan amaitu zen. Hala, erakusketa hark lehen mailako artista internazionalen artean kokatu zuen Kokoschka, eta horri esker gero eta eskari gehiago jaso zituen politikari nabarmenen erretratuak egiteko. 1953an artista eta bere emaztea Suitzan jarri ziren bizitzen, Villeneuveko hirian. Margolariak bere ibilbidearen hastapenetatik erakutsi zuen interes handia artearen historian, eta azkeneko etapan suspertu egin zitzaion jakin-min hura. Maisu Zaharrak inspirazio-iturri bihurtu ziren, baita Greziako eta Erromako arte eta arkitektura klasikoak ere. Kokoschkak askatasun artistiko agortezina aurkitu zuen, eta Vienako bere hasierako aldiaren oihartzun diren figurazio espresiboak heldu ziren berriro.

Une hartan itzal handiko europar gisa eta kontinente batu baten defendatzaile sutsu gisa nabarmendu zen. Gero eta eszena mitologiko eta tragedia greko gehiago irudikatzeaz ekin zion, Europako kultura bateratu baten (ber)eraikuntza lortzeko nahi biziak bultzatuta. Ezohiko dinamika bat garatu zuen gorputza eta kolorea adierazteko, non argia bilakatu zen ezinbesteko elementu. Itxuraz bere irudiek sarritan hondoarekin bat egiten dutela iruditu arren, ez dira inoiz guztiz lausotzen eta ez dira inoiz benetan abstraktu izatera iristen. Kokoschka abstrakzioarako joera orokorrekiko kontrakarrean aritu zen. 1953ean “Begiradaren Eskola” sortu zuen Salzburgon. Bertan, Jan Amos Komenský pedagogo eta filosofoaren metodologia abiapuntutzat hartuta, irudietan eta behaketan oinarritutako hezkuntza eskaintzen zen. Eta, horrela, eskolaren eraginpean ikasitako artisten belaunaldi berria funtsezko alderdi bat izan zen Kokoschkaren lana ezagutarazteko eta haren ondarea eraikitzeke. Berriro ere *enfant terrible*ren papera hartuta, Kokoschkak eragin nabarmena izan zuen etorkizuneko artistengan. Bere maisulanen betiereko gordintasunak eta artistaren azken obretako pintzelaren larritasunak erradikaltasun piktoriko bat uzten dute agerian, Vienako bere hastapenak gogora ekartzen dituenak. Hil zen arte, irmo jarraitu zuen defendatzen pinturak duen ahalmen subertsiboa emantzipazioa eta ezagutza eskuratzeko tresna gisa erabiltzen bada.

Founding Salzburg's "School of Visions" in 1953, offering instruction through art and observation based on the works of educationalist Jan Amos Comenius, the next generation of artists became an essential aspect of his work and legacy building.

DIDAKTIKA

Erakusketa honen Didaktika guneak testuen, irudien eta aipuen bidez ezagutzera ematen ditu Oskar Kokoschka artista polifazetikoaren fazeta desberdinak, bere izaera osatzen dutenak behatzaile, errebelde, margolari, irakasle, humanista eta artista konprometitu gisa.

Testu eta irudiez gain, ikus-entzunezko pieza bat dago ikusgai. Hainbat dokumentalen zatiz osatutako bideoan Kokoschka bera ere ageri da, eta publikoak aukera izango du bere obra goiztiarraren gakoetako batzuk, antzinako Greziak eragiten zion miresha eta Begiradaren Eskolan aditzera eman zuten hezkuntzari buruzko ikuspegi berezia ezagutzeko.

Bestetik, erakusketak irakurketa eta kontsultarako gune bat du, artistarengan eragina izan zuten idatzi batzuk berreskuratu dituenak, besteak beste: *Orbis Sensualium Pictus*, Jan Amos Komenský (Comenius) pedagogoarena, eta *Iliada*, Homerorena, baita bere autobiografia eta erakusketaren katalogoa ere.

Jarduerak

Inaugurazioko hitzaldia (martxoak 15)

Erakusketaren komisario Dieter Buchhart eta Anna Karina Hofbauerren arteko elkarrizketa honetan Oskar Kokoschkaren lanaren funtsezko ideietako batzuk azalduko dituzte, erakusketa honetako gakoak aztertzeko.

Hausnarketa partekatua

Bisitaldi hauetan, Guggenheim Bilbao Museoko profesionalek ikuspegi eta irakurketa desberdinak eskaintzen dituzte erakusketa berri bakoitzari buruz:

- Arte-arduradunen ikuspegia (martxoak 22): Marta Blàviarekin; Museoko arte-arduradun taldeko kidea.
- Funtsezko kontzeptuak (martxoak 29): Luz Maguregui Urquizarekin; Hezkuntza eta Interpretazioko koordinatzailea.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Gaikako bisitaldiak – Kokoschka eta musika: Vienako zirkulua (apirilak 27, maiatzak 4 eta 18, ekainak 1)
Patricia Sojo musikologoak dinamika gidatu bat eskainiko du obren aurrean. Dinamika horretan, edukiak eta azalpenak musika-entzunaldiekin elkartzen dira. Ibilbidea osatzeko, garaiko Viena eta Oskar Kokoschkaren erreferentziak eta loturak —artistak erretratatuak Alma Mahler, Arnold Schönberg edo Pau Casals besteak beste— erakutsiko dira.

Kokoschka, œuvre-vie (maiatzak 26)

Kokoschka, œuvre-vie filmaren proiektzioa eta aurkezpena. Michel Roddek 2017an zuzendua.

Aurkezpenean zuzendariak parte hartuko du.

KATALOGOA

Katalogoak azterketa sakon bat egiten du 300 orri baino gehiagotan zehar Oskar Kokoschkaren ibilbidetik. Bertan, erakusketan ikusgai dauden obren erreproduktzioak jasotzen dira, artistaren lanaren eta bizitzaren alderdi interesgarriak hiltzen dieten testuekin batera. Aritu hauek dira testuen egileak: Dieter Buchhart, Jacques Le Rider, Bernadette Reinhold, Fanny Schulmann, Ines Rotermund-Reynard, Anna Karina Hofbauer, Régine Bonnefoit eta Aglaja Kempf. Bestetik, kronologia batek errepaso bat egiten du artistaren ibilbide oparo eta nomadaren etapa desberdinetatik —Viena, Dresden, Paris, Praga, Ingalaterra, Suitza...— artistaren beraren testigantza adierazgarriak, baita garaiko beste pertsona gailen batzuenak ere eskainiz.

Azaleko irudia:

Oskar Kokoschka

Dortoka erraldoiak (Riesenschildkröten), 1927

Olio-pintura mihise gainean

90,4 x 118,1 cm

Kunstmuseum Den Haag, Haga, Herbehereak

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazioa eta Marketina saila

Tel: 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Oskar Kokoschka: Vienako errebeldea
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsako online irudien zerbitzua


Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratu zaitezke bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu zaitezte eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaile bazarete, sartu zuen erabiltzaile-izena eta -gakoa, eta sarbide zuzena izango duzue irudien deskargara.

- Ematen diren irudiak *Oskar Kokoschka: Vienako errebeldea* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2023ko martxoaren 17tik irailaren 3ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, *copyrighta* eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoko egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pizeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati edo datu-base batera.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake eta alde zuzenetik obraren jabearen eta *copyrighten* titularraren baimena behar izango du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan edo posta elektronikoko helbide honetan: media@guggenheim-bilbao.eus

Oskar Kokoschka
Auguste Forel, 1910
Olio-pintura mihise gainean
70 x 58 cm
Kunsthalle Mannheim,
© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo
© Argazkia: Kunsthalle Mannheim



Oskar Kokoschka

Herwarth Walden, 1910

Olio-pintura mihise gainean

100 x 69,3 cm

Staatsgalerie Stuttgart, Loteriaren funtsekin eskuratua, 1966

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo

© 2023. Argazkia: Scala, Florence/bpk, Bildagentur fuer Kunst, Kultur und Geschichte, Berlin



Oskar Kokoschka


Dolomitetako paisaia, Tre Croci (Tre Croci - Dolomitenlandschaft), 1913

Olio-pintura mihise gainean

80 x 120,1 cm

Leopold Museum, Viena

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Musikaren indarra (Die Macht der Musik), 1918

Olio-pintura mihise gainean

104,5 x 154,3 cm

Collection Van Abbemuseum, Eindhoven

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Dresden, Neustadt V, 1921

Olio-pintura mihise gainean

71 x 111 cm

Israel Museum, Jerusalem. The Sam Spiegel Collection,

honi oinordetzan utzia: American Friends of the Israel Museum,

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Iturburua (Die Quelle), 1922-1938

Olio-pintura mihise gainean

149 x 165 cm

Kunsthau Zurich, dohaintza: Olda Kokoschka, 1988

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Margolaria II (Margolaria eta modeloa II) [Der Maler II (Maler und Modell II)], 1923

Olio-pintura mihise gainean, zur gainean muntatuta

85,5 x 130,5 cm

Saint Louis Art Museum, legatua: Morton D. May, 1983

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Tigoia (Tigerlöwe), 1926

Olio-pintura mihise gainean

96 x 129 cm

Belvedere, Viena

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Dortoka erraldoiak (Riesenschildkröten), 1927

Olio-pintura mihise gainean

90,4 x 118,1 cm

Kunstmuseum Den Haag, Haga, Herbehereak

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Temacineko marabuta (Sidi Ahmet Ben Tidjani) [Der Marabout von Temacin (Sidi Ahmet Ben Tidjani)], 1928

Olio-pintura mihise gainean

98,5 x 130,5 cm

Musée Jenisch Vevey - Fondation Oskar Kokoschka

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

“Artista degeneratu” baten autorretratu (Selbstbildnis eines “Entarteten Künstlers”), 1937

Olio-pintura mihise gainean

110 x 85 cm

National Galleries of Scotland, maileguan, bilduma pribatua

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Karramarroa (Die Krabbe), 1939-1940

Olio-pintura mihise gainean

63,4 x 76,2 cm

Tate, Londres. 1984an erosia

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Anschluss. Alizia Lurralde Miresgarrian (Anschluss – Alice im Wunderland), 1942

Olio-pintura oihal gainean

63,5 x 73,6 cm

Wiener Städtische Versicherung AG – Vienna Insurance Group,
mailegu iraunkorreen hemen: Leopold Museum, Viena,

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Teseo eta Antiope (Antioperen bahiketa)

[*Theseus und Antiope (Raub der Antiope)*], 1958-1975

Olio-pintura mihise gainean

195 x 165 cm

Musée Jenisch Vevey – Fondation Oskar Kokoschka,

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo



Oskar Kokoschka

Time, Gentlemen Please, 1971-1972

Olio-pintura mihise gainean

130 x 100 cm

Tate, Londres. 1986an erosia

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023, VEGAP, Bilbo

